

2020/2021 ikasturtea



# DANTZABIDEAK

*Irakaslegoarentzako Dossier*

SORKUNTZA ARTISTIKORAKO ZENTRO INTERNAZIONALA, DANTZAZ

GLOBAL ZERBITZU KULTURALAK

## AURKIBIDE

Sarrera .....	2
Batzen gaituen ekimena.....	3
Inspirazioa.....	3
Proposamenaren garapena.....	3
IRAKASLEGOAREN GIDA DIDAKTIKOA.....	5
Proiektuaren justifikazioa.....	5
Helburuak.....	6
Testuinguru hezigarria.....	6
Zeharkakotasuna .....	6
Eginkizuna eta metodologia.....	7
Gaitasunak eta helburuak.....	7
Edukiak .....	9
Beharko diren materialak.....	10
Denborak.....	10
Ebaluazioa.....	10

## SARRERA

DANTZABIDEAK, DANTZAZ eta GLOBAL ZERBITZU KULTURALEN arteko ekimena da eta sormen koreografikoak gizartera gerturatu eta sorkuntza koreografikorako zentro internazionalen (DANTZAZen) sortutako prozesu koreografikoen parte izatea du helburu.

DANTZABIDEAK honako hauek batzen ditu, alde batetik, DANTZAZ, 20 urtez hainbat sorkuntza prozesu aurrera eramán dituen; GLOBAL ZERBITZU KULTURALA 25 urte baino gehiagoko eskarmentua duena; NAFARROAKO ANTZOKIEN SAREEN ELKARTEA, proiektua antolatu eta finantziatzen du parte hartuko duten udalerriekin eta eskolekin batera. DANTZABIDEAK hainbat aurrekari izan ditu, adibidez, Dantzazubiak, edo 2018-2019an aurrera eramandako Dantzabideak.

### Bideoak:

- Dantzabideak 2018-2019: <https://vimeo.com/362532680>
- Dantzabidea (Auditorio Barañáin): <https://vimeo.com/200200527>
- Dantzabidea (Eibar): <https://vimeo.com/230259583>

## **BATZEN GAITUEN EKIMENA...**

### **Inspirazioa**

Martin Harriague koreografoa (Ipar Euskal Herria), Dantzazen dantzari eta konpainiarentzako "Esclavos felices" obra sortu eta gero 2020an bueltan da Atalak proiektuak bultzatutako produkzioa sortzeko. Estantzia koreografiko honi esker "Walls" obra sortu zuen, 2020ko otsailean Senperen estreinatu zena. Pieza honek aurrekoak baino iraupen luzeagoa du eta gizateriak munduko harresi eta hormekin duen harremanean inspiratzen da. Gaur egun, ematen du, hormigoia, arantza eta alanbrea modan daudela. Harriaguek erakusten digun harresiek, espazioa banatu, paisaia apurtu eta pertsonak umiltzen dituela. Mugimendu askeek topo egiten dute harriaren gogortasunarekin, harresi horrek duen bortizkeria fisikoa eta sinbolikoa azaleratuz. Egoera guztiek dute alde xamur bat, eta jolasak, umoreak eta askatasun nahiak libratu egin gaitzake desesperazioaz.

### **Proposamenaren garapena**

Mediazio jardunaldi hauetan, sorkuntza prozesu bat eramaten dugu aurrera, konpainiako mediazio taldea eta proiektuan parte hartuko duten ikasleen artean. Prozesuan sortutako koreografiak parte hartu duten herrien espazio eszenikoetan edo bakoitza bere eskolan eginik azkeneko aurkezpena. Hau eskolek eta herri ezberdinetako kultur teknikariek zehaztuko dute egungo egoera zein den aztertu eta honen inguruan hausnartu eta gero.

Tailerrak garatzeko aurretik aipatutako obra izango da abiapuntua eta koreografoak erabilitako hainbat errementa koreografiko erabiliko dira beti ikasleagoa kontuan izanda. Horretarako, hainbat ideia lanudo ditugu mugimendu eta gorputzaren bidez, ikasleagoak hauen inguruan hausnartu eta munduari buruzko duten ikuspuntua zabaltzeko.

Alderdi hauek guztiz erlazionatuta daude obraren gaiarekin eta baita zuzenki proiektuan garatuko den proposamenarekin ere. Izan ere, dantza eta gorputza izango

dira mezu, sentimendu, emozio eta sentsazioen adierazle. Interesgarria eta aberatsa iruditzen zaigu dantzaren bitartez aspektu hauetan murgiltzea, dantza baita huen transmisore zuzena.

- Teaser “Walls” <https://vimeo.com/385975977>



## IRAKASLEGOAREN GIDA DIDAKTIKOA

### **Proiektuaren justifikazioa**

Hurrengo lerroetan deskribatzen den proiektuan, kurrikulo akademikoaren hainbat konpetentzia eta eduki biltzen ditu, konkretuki: hezkuntza artistikoa, gorputz hezkuntza eta hiritartasunerako konpetentzia eta ikasgaien barne dauden edukiak. Kurrikulumak, dantza eta gorputz adierazpena erreferentziatzen ditu baina zehaztasun handirik gabe hezkuntza artistiko eta gorputz hezkuntzako arloetan. Gorputz hezkuntzako esparruan zehazki dantzaren bitartez gorputz adierazpena eta sormena jorrazteko aukera ematen du. Proiektuan Dekretuan ageri diren zeharkako konpetentziak ere jorrazteko dira. Hala ere, ez da ohikoa irakasleek sormena dantza edo gorputz adierazpenaren bitartez lantzea eta, hori dela eta, horrelako proiektuak oso garrantzitsu zein aberasgarriak direla iruditzen zaigu.

Lehen eta bigarren hezkuntzan ikaslegoak dantzarekin harremana izatea funtsezkoa da, norbanakoaren garapenean garrantzitsuak diren hainbat arlo garatzeko aukera ematen duelako. Batetik, alderdi kognitiboa, sormena prozesu kognitibo bat baita. Beste alde batetik, motrizitatea lantzen da, dantzak inplizituki barnean mugitzeko ekintza duelako eta gorputza erabiltzen dugulako erreminta gisa. Honetaz gain, gaitasun sozioemotionalak garatzen dira, ikaslegoa esperientziak konpartitzeaz gain sortzen diren gatazka txikiak konpontzeko gaitasunak garatzen dituztelako.

Ikasleak gorputza erabiliko du emozio, pentsamendu zein sentimenduak komunikatzeko kreatibitatea honen bitartez sormena garatuz. Dantza eta gorputz adierazpenak, kurrikulumean dauden hainbat helburu, konpetentzia eta jakintza esparru garatzeko aukera ematen dute. Hauek, Nafarroako kurrikulumean adierazten dira.

---

## **Helburuak**

Helburuak hauek dira:

- Dantzaren presentzia ikastetxeetan sustatu mediazioa eta sentsibilizazio proiektuen bitartez.
- Sormena eta gorputzaren mugimendua garatzen den bizipen artistiko baten parte izateko aukera ematea.
- Ikasleei sortzeko hainbat erreminta eskeini proposamen koreografikoak sortu ditzaten.
- Sorkuntza prozesu baten parte izateko auketa eskeini eurek partaide direla.

---

## **Testuinguru hezigarria**

Proiektua Nafarroako 6 herritan aurrera eramango da: Altsasu, Olazti, Etxarri-Aranatz, Antsoain eta Aurrerabia. Partaideak, Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken zikloko ikasleak izango dira.

---

## **Zeharkakotasuna**

Proiektu honek sorkuntza koreografikoa norbanakoak autokontzientzia garatzeko erreminta erabilgarri bat izatea du helburu. Honetaz gain, norbera eta espazioa, denbora eta beste kide batzuekin garatzen diren harremanen inguruan hausnartzeko erreminta bat izatea. Guzti hau, aurretik aipatutako obra oinarritzat hartuta garatuko da, non komunikatu, jolastu, imaginatu, sortu eta nola ez, dantzatuko den.

Ikastetxeetako irakasleek obran ageri diren elementu desberdinak haien ikasgaietan integratzen saiatuko dira sorkuntza astea aurrera eraman aurretik edo geroago.

Proposatzen den dinamika hurrengo da: astebetez egunean ordu betez ikasleak sorkuntza prozesuan murgiltzea da. Konpainiak, laguntza eskeiniko musikak aukeratzeko garaian eta sorkuntza prozesu osoan zehar hainbat erreminta eskeiniko

dizkio ikaslegoari. Emanaldian ikasleek sortutako proposamen guztiak erakutsiko dira

Sorkuntza astearen bukaeran, koreografia eskeiniko diete beste ikasleei ikastetxean edo eta antzoki batean. Konpainiak bi obra eskeiniko ditu ere ikasleen “telonero” gisa, ala eskatu bada. Konpainiaren presentziak, ikasleentzako beste estimulo bat da behaketarako, alaber, publiko berriak sortzen laguntzen du.

---

### **Eginkizuna eta metodologia**

Talde bakoitzak koreografia txiki bat sortuko du konpaniako mediazio taldeko kideek emandako tresnen bitartez. Hauek, koreografoak pieza sortzeko prozesuan erabilitako erremintetan oinarrituta daude. Horrez gain, gaiarekin bat egingo dugu.

Sorkuntza giro atsegina eta dibertigarri batean garatuko da ikaslegoak dantzarekiko zaletasuna handitzeko nahian. Proiektu honen bidez, osasuna eta trebetasun sozialak hobetu nahi dira sedentariotasun teknologikoa albo batera utziz.

Sorkuntza aipatutako errekurtsoen bitartez eraikiko da, baina musikak ere garrantzi handia izango du koreografoarentzat ere funtsezkoa izan zelako. Kanon deituriko tresna koreografikoa ere erabiliko dugu koreografoak hau oinarritzat hartu zuen pieza sortu zuenean.

---

### **Gaitasunak eta helburuak**

Proiektua garatzeko hiru konpetentzia hartu dira kontuan: motrizia, artistikoa eta soziala. Zeharkako konpetentziak ere landuko dira baita beste konpetentzia espezifiko batzuk, adibidez matematikakoa.

- **Mugimendurako konpetentzia**

**Hainbat trebezia** fisiko garatzea, mugimendu eta gorputzarekin harreman duta dauden edukiak integratu eta hauei buruz hausnartu. Ikasketa prozesuan



zehar hausnartu, pentsatu, kritikatu eta komunikatuko dira ikasleak modu autonomo batean.

Konpetentzia honek zuzenki integratzen ditu konpetentzia artistikoa eta elkarbizitzarako konpetentzia. Batetik, ikasleak modu natural eta osasun batean harremantzea laguntzen du. Prozesuan sortu daitezken gatazkak modu baketsu batean gainditzea sustatzen du elkarren arteko kolaborazio eta kooperazioaren bitartez. Konpetentzia hau inprobisazioa, dantza kreatiboa, sorkuntza eta komunikatzeko gaitasunen bitartez garatzen da. Konpetentziaren bitartez osasunarekin harremanduta dauden hainbat konpetentzia lantzen dira.

Konpetentzia honen garapenak ikasleei lagunduko die konturatzen zeintzuk diren norberak arlo honetan dituen potentzialak. Hausnartu egin eta gero ulertu ahalko dute zeintzuk diren haien muga eta potentzialak eta zelan hobetu.

- **Gaitasun artistikoa**

Lenguai eta kodigo artistiko desberdinak ezagutzea. Kreatibitatea eta irudimena landuz mezu artistikoak sortzea.

Gaitasun honek hiritartasunerako konpetentziaren garapenean modu zuzen batean laguntzen du. Konpetentzia honen bitartez ikaslegoak diskurtsoak sortu eta komunikatzeko hainbat tresna garatuko ditu. Sorkuntza artistikoak ikasleak elkarlanean lan egiteko aukera ematen die, errespetua, tolerantzia eta elkartasuna bezalako baloreak sustatuz elkarren arteko harremanak sakondu eta indartzeko.

- **Gaitasun soziala eta hiritartasuna**

Konpetentzia honen bitartez egunerokatasunean elkarbizitza parte hartzaile eta inplikatu batean bizitzeko prestatzen zaie. Ikaskuntza prozesuak inplizituki lantzen ditu, gaitasun sozial, pertsonalak, interpertsonal zein kulturartekoak. Hainbat tresna luzatuko zaizkie ikaslegoak norbanakoaren

autoestimua garatzeko bizi diren gizartera egokituta. Besteekiko izan behar dugun errespetua, enpatia eta tolerantziarekin oinarrituta dago, eta hauek zuzenki Giza Eskubideekin zuzenki harremanduta daude,

- **Zeharkako kompetentziak**

o **Komunikaziorako kompetentzia**

Egoera desberdinetan komunikatzeko gaitasuna, hitzez, beste modu batzuetan eta situazio ezberdinetan.

o **Ikasteko eta pentsatzeko kompetentzia**

Modu autonomo eta eraginkor batean antolatzeko tresnetaz baliatzea.

o **Izeateri ikasteko kompetentzia**

**Bizitzan zehar** egoera desberdinetan gerta daitezkeen hainbat gertakariei buruz hausnartzea. Egoerari buruz hausnartu eta gero honetarako egokitzen ikastea.

o **Iniziatibarako kompetentzia**

Egoera pertsonal, sozialetan, lanean edo ikasketetan gerta daitezken gatazkeei modu eraginkor batean iniziatibarekin aurre egitea.

o **Bizikidetasunarako kompetentzia**

Norbere eta komunitatearen onurarako modu egoki batean parte hartzea egoera desberdinen aurrean. Gaitasun hau lehen eta bigarren hezkuntzan arlo guztietan lantzen da.

---

**Edukiak**

- **Bloque 1- Sorkuntzarako erremintak**

- a) Norbanakoaren mugimendua aztertzea
- b) Gorputza eta espazioaren arteko harremana
- c) Gorputza eta denboraren arteko harremana

- d) Kontzentrazio eta memoria lantzea
- e) Norbanako gorputza eta beste kideen arteko harremana
- **Bloque 2- Proceso creativo:**
  - a) Gorputzaren bitartez komunikatzea proposatutako gaia.
  - b) Banaka sortzea
  - c) Taldeka sortzea
- **Bloque 3- Nos conocemos a nosotros mismos y a los demás compañeros:**
  - a) Elkarrekin ikastea
  - b) Proposatutako proposamenen inguruan hausnartzea
  - c) Taldean lan egiten ikastea
  - d) Erabakiak hartzen eta amore ematen ikastea

---

### **Beharko diren materialak**

Saioak garatu ahal izateko gela handi bat behar da ikasleak askatasunez mugitzeko. USB edo mini jacka duen musika aparatua bat, eta folio zuri eta boligrafoak hainbat ariketa garatzeko ere behar izango dira.

---

### **Denborak**

Sekuntzia didaktikoa 5 saiotan banatuta dago. Azkenengo saioan entsegu orokorra eta emanaldia egingo da. Saiotetan aipatutako hiru eduki blokeak landuko dira baita proiektuan landuko diren kompetentziak. Sekuntzia aste berdineko 5 egunetan garatuko da (astelehenetik ostegunera 60 minutuko 4 saioetan, eta azken egunetan entsegu orokorra eta emanaldia, honen iraupena aldakorra da beharren arabera eta ikasle kopuruaren arabera).

---

### **Ebaluazioa**

Galdetegi bat luzatuko zaie parte hartu duten ikasleei eta parte hartu ez duten talde batzuei emaitzak alderatu ahal izateko.

*Hurrengo lerroetan, DANTZABIDEAK proiektuan landuko diren kompetentzia, helburu eta edukiak ikus daitezke koadroan.*



Helburu didaktikoak	Konpetentziak	Saioetan garatuko diren edukiak	Dekretuan aipatutako eduki eta ikasgaien arteko harremana	Edukiak Dekretuan ageri diren ikasgai eta blokeekin harreman duta	Dekretuan oinarritzen diren ebaluazioa irizpideak
Norbanako mugimendua aztertzea	KM, KA, KH, ZK	Bloke 1- a, d Bloke 2- a, b Bloke 3- b	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Heziketa artistikoa</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Gorputz adierazpena</li> <li>◦ Dantza sinpleak</li> <li>◦ Gestualizatzen diren abestiak lantzea</li> </ul> </li> <li>- <b>Heziketa fisikoa</b> Norbere gorputza ezagitzea, erlazazioa eta tentsioa lantzea. Mugimenduak ematen dituen aukerak ezagutzea. Salto, giro eta desplazamendu desberdinak ezagutzea. Mugimenduari harreman dutako gaitasun basikoak kontrolatzea. Muskuluen tonoarekin eta gestoekin harreman dutako aukerak ikertzea. Mugimendu eta honen bidez komunikatzea denbora, espazioa, intentzitatea eta harremanak kontuan hartuta.</li> <li>- <b>Hiritartasuna:</b> Autokontzeptua. Identitate pertsonala. Norbanakoaren sentimendu eta emozioak ezagutzea. Norbanakoaren gaitasunak ezagutzea. Emozioak eta autonomia garatzea. Norbanakoaren carrera kontrolatzea. Inputsoen kontrola, erlazazioa. Arduratxua izatea. Enpatia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Heziketa artistikoa : bloke 4</li> <li>- Heziketa fisikoa bloke 1, bloke 2, bloke 3</li> <li>- Hiritartasuna: bloke 1</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Heziketa fisikoa:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Mugimendurako gaitasunak aplikatzea zehazten den momentuan eta aipatzen den espazio edo denborara egokitzea. Gorputz Atal eta hauen mugimenduak kontrolatzea. Tentsio eta erlazazio momentuak desberditzeko gai izatea. Ekilibrio eta desekilibrioa kontrolatzea. Mugimendu eta gorputzaren komunikatzeko dituen</li> </ul> </li> <li>- <b>Heziketa artistikoa:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Gorputzaren atal desberdinak erabiltzea expresatzeko medio bezela hauek koordinatuz.</li> <li>◦ Hainbat keinu eta mugiendo egitea proposatzen denaren arabera.</li> <li>◦ Dantza sinpleak interpretatzeko gai izatea.</li> </ul> </li> <li>- <b>Hiritartasuna:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Emozio eta sentimendu desberdinak ezagutzea eta hauek gorputzaren bidez transmititzeko gai izatea.</li> </ul> </li> </ul>
Idea eta emozioak gorputzaren bidez adieraztea	KM, KA, KH, ZK	Bloke 2- a Bloke 3- b	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Heziketa artistikoa</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Gorputz adierazpena</li> <li>◦ Dantza sinpleak</li> <li>◦ Gestualizatzen diren abestiak lantzea</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Heziketa artistikoa: bloke 4</li> <li>- Heziketa fisikoa: bloke 3</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Heziketa fisikoa:</b> Mugimendurako gaitasunak aplikatzea zehazten den momentuan eta aipatzen den espazio edo denborara egokitzea. Gorputz Atal eta hauen mugimenduak kontrolatzea. Tentsio eta erlazazio</li> </ul>

Helburu didaktikoak	Konpetentziak	Saioretan garatuko diren edukiak	Dekretuan aipatutako eduki eta ikasgaien arteko harremana	Edukiak Dekretuan ageri diren ikasgai eta blokeekin harremanduta	Dekretuan oinarritzen diren ebaluazioa irizpideak
			<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Heziketa fisikoa</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Norbere gorputza ezagitzea, erlazazioa eta tentsioa lantzea. Mugimenduak ematen dituen aukerak ezagutzea. Salto, giro eta desplazamendu desberdinak ezagutzea.</li> </ul> </li> </ul> <p>Mugimenduarekin harremandutako gaitasun basikoak kontrolatzea. Muskuluen tonoarekin eta gestoekin harremandutako aukerak ikertzea. Mugimendu eta honen bidez komunikatzea denbora, espazioa, intentzitatea eta harremanak kontuan hartuta.</p>		<p>momentuak desberditzeko gai izatea. Ekilibrio eta desekilibrioa kontrolatzea. Mugimendu eta gorputzaren komunikatzeko dituen</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Heziketa artistikoa:</b> Gorputzaren atal desberdinak erabiltzea expresatzeko medio bezela hauek koordinatuz. <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Hainbat keinu eta mugimendu egitea proposatzen denaren arabera.</li> <li>◦ Dantza sinpleak interpretatzeko gai izatea.</li> </ul> </li> </ul>
Sormena garatzea	KM, KA	Bloke 1- a, b, c, d, e Bloke 2- a, b, c Bloke 3- a, b	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Heziketa artistikoa</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Gorputz adierazpena</li> <li>◦ Dantza sinpleak</li> <li>◦ Gestualizatzen diren abestiak lantzea</li> </ul> </li> <li>- <b>Heziketa fisikoa</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Norbere gorputza ezagitzea, erlazazioa eta tentsioa lantzea. Mugimenduak ematen dituen aukerak ezagutzea. Salto, giro eta desplazamendu desberdinak ezagutzea.</li> </ul> </li> </ul> <p>Mugimenduarekin harremandutako gaitasun basikoak kontrolatzea. Muskuluen tonoarekin eta gestoekin harremandutako aukerak ikertzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Heziketa artistikoa: bloke 4</li> <li>- Heziketa fisikoa: bloke 3,</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Heziketa fisikoa:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Mugimendurako gaitasunak aplikatzea zehazten den momentuan eta aipatzen den espazio edo denborara egokitzea. Gorputz Atal eta hauen mugimenduak kontrolatzea. Tentsio eta erlazazio momentuak desberditzeko gai izatea. Ekilibrio eta desekilibrioa kontrolatzea. Mugimendu eta gorputzaren komunikatzeko dituen</li> </ul> </li> <li>- <b>Heziketa artistikoa:</b> Gorputzaren atal desberdinak erabiltzea expresatzeko medio bezela hauek koordinatuz. <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Hainbat keinu eta mugimendu egitea proposatzen denaren arabera.</li> <li>◦ Dantza sinpleak interpretatzeko gai izatea.</li> </ul> </li> </ul>

Helburu didaktikoak	Konpete nziak	Saioretan garatuko diren edukiak	Dekretuan aipatutako eduki eta ikasgaien arteko harremana	Edukiak Dekretuan ageri diren ikasgai eta blokeekin harremanduta	Dekretuan oinarritzen diren ebaluazioa irizpideak
			Mugimendu eta honen bidez komunikatzea denbora, espazioa, intentzitatea eta harremanak kontuan hartuta.		
Taldekieen arteko konfiantza garatzea	KH, ZK	Bloke 2- c Bloke 3- a, b, c	- <b>Hiritartasuna</b> Gaitasun sozialak. Norbanakoaren beharrak identifikatzea. Laguntza eman eta pasotzeko gai izatea. Jarduera ezberdinetan parte hartzeko gai izatea. Laguntasunaz disfrutatzea. Gatazkak konpontzeko gai izatea. Bizitzan zehar sortzen diren egoera atsegin eta desatseginak identifikatzeko gai izatea. Egunerokotasunean sortzen diren gatazkak identifikatzeko eta hauek azaltzeko gai izatea.	- Hiritartasuna: Bloke 2, bloke 3	- <b>Hiritartasuna</b> Taldekako jardueretan parte hartzea laguntasunaz disfrutatuz eta norbanako eta taldeak diputen beharrak identifikatzea laguntza jaso eta eskeiniz. 2. Gatazkak identifikatu, zaldu eta hauek konpontzeko konponbideak topatzea hausnartzeko gaitasuna garatuz.
Sorkuntza koreografikoaren bidez taldean lan egiten ikastea	KA, KH, ZK	Bloke 2- c Bloke 3- c	- <b>Hiritartasuna:</b> Autokontzeptua. Identitate pertsonala. Norbanakoaren sentimendu eta emozioak ezagutzea. Norbanakoaren gaitasunak ezagutzea. Emozioak eta autonomia garatzea. Norbanakoaren jarrera kontrolatzea. Inpultsoen kontrola, erlazazioa. Arduratua izatea. Komunikatzeko gaitasunak garatzea. Komunikatu den mezuari buruz hausnartzea. Espresatu nahi diren	Hiritartasuna: bloke 1, bloke 2, bloke 3	- <b>Hiritartasuna</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Taldekako jardueretan parte hartzea laguntasunaz disfrutatuz eta norbanako eta taldeak diputen beharrak identifikatzea laguntza jaso eta eskeiniz. 2. Gatazkak identifikatu, zaldu eta hauek konpontzeko konponbideak topatzea hausnartzeko gaitasuna garatuz.</li> <li>◦ Elkarren artean komunikatzen ikastea, ideiak errespetuz eta modu argi baten adieraziz.</li> <li>◦ Beste kide batzuk sakonki ulertzea, errek sentitutakoa eta egindakoaz hausnartuz.</li> </ul>

Helburu didaktikoak	Konpete nziak	Saioetan garatuko diren edukiak	Dekretuan aipatutako eduki eta ikasgaien arteko harremana	Edukiak Dekretuan ageri diren ikasgai eta blokeekin harreman duta	Dekretuan oinarritzen diren ebaluazioa irizpideak
			ideiak argi edukitzea. Elkarren artean errespetatzea. Enpatia. Besteek duten potentziala ezagutzea. Elkarren arteko diferentziak ulertzea.		<ul style="list-style-type: none"> <li>Elkarren arteko desberdintasunaz identifikatzea.</li> </ul>
Norbanakoaren mugimendua identifikatu espazio, denbora eta beste gorputzekin harremanak bilatuz	KM, KA,	Bloke 1- a, b, c, e Bloke 2- b	<p><b>- Heziketa artistikoa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gorputz adierazpena</li> <li>Dantza sinpleak</li> <li>Gestualizatzen diren abestiak lantzea</li> <li><b>Heziketa fisikoa:</b></li> </ul> <p>Norbere gorputza ezagitzea, erlazazioa eta tentsioa lantzea. Mugimenduak ematen dituen aukerak ezagutzea. Salto, giro eta desplazamendu desberdinak ezagutzea.</p> <p>Mugimenduekin harreman dutako gaitasun basikoak kontrolatzea.</p> <p>Muskuluen tonoarekin eta gestoekin harreman dutako aukerak ikertzea.</p> <p>Mugimendu eta honen bidez komunikatzea denbora, espazioa, intentzitatea eta harremanak kontuan hartuta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Heziketa artistikoa: bloke 4</li> <li>Heziketa fisikoa: bloke 1, bloke 2, bloke 3</li> </ul>	<p><b>- Heziketa artistikoa:</b></p> <p>Gorputzaren atal desberdinak erabiltzea expresatzeko medio bezela hauek koordinatuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hainbat keinu eta mugimendu egitea proposatzen denaren arabera.</li> <li>Dantza sinpleak interpretatzeko gai izatea.</li> </ul> <p><b>- Heziketa fisikoa:</b></p> <p>Mugimendurako gaitasunak aplikatzea zehazten den momentuan eta aipatzen den espazio edo denborara egokitzea. Gorputz Atal eta hauen mugimenduak kontrolatzea. Tentsio eta erlazazio momentuak desberditzeko gai izatea. Ekilibrio eta desekilibrioa kontrolatzea. Mugimendu eta gorputzaren komunikatzeko dituen</p>
Entzun, erabakiak hartu eta amore ematen ikasi	KM, KA, KH, ZK	Bloke 3- c, d	<p><b>- Hiritartasuna:</b></p> <p>Autokontzeptua. Identitate pertsonala. Norbanakoaren sentimendu eta emozioak ezagutzea. Norbanakoaren gaitasunak ezagutzea. Emozioak eta</p>	Hiritartasuna: bloke 1, bloke 2, bloke 3	<p><b>- Hiritartasuna:</b></p> <p>Taldeko jardueretan parte hartzea laguntasunaz disfrutatuz eta norbanako eta taldeak diputen beharrak identifikatzea laguntza jaso eta eskeiniz.</p> <p>2. Gatazkak identifikatu, zaldu eta hauek</p>



Helburu didaktikoak	Konpetentziak	Saioretan garatuko diren edukiak	Dekretuan aipatutako eduki eta ikasgaien arteko harremana	Edukiak Dekretuan ageri diren ikasgai eta blokeekin harreman duta	Dekretuan oinarritzen diren ebaluazioa irizpideak
			autonomia garatzea. Norbanakoaren jarrera kontrolatzea. Inpultsoen kontrola, erlazazioa. Arduratxua izatea. Enpatia		konpontzeko konponbideak topatzea hausnartzeko gaitasuna garatuz. <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Elkarren artean komunikatzen ikastea, ideiak errespetuz eta modu argi baten adieraziz.</li> <li>◦ Beste kide batzuk sakonki ulertzea, erak sentitutakoa eta egindakoaz hausnartuz.</li> <li>◦ Elkarren arteko desberdintasunaz identifikatzea.</li> </ul>
Mugimendu eta gorputz desberdinen dibertsitatea ulertu	KM, KA, KH, ZK	Bloke 1- a, e	- <b>Hiritartasuna:</b> Autokontzeptua. Identitate pertsonala. Norbanakoaren sentimendu eta emozioak ezagutzea. Norbanakoaren gaitasunak ezagutzea. Emozioak eta autonomia garatzea. Norbanakoaren jarrera kontrolatzea. Inpultsoen kontrola, erlazazioa. Arduratxua izatea. Enpatia	Hiritartasuna: bloke 1, bloke 2, bloke 3	- <b>Hiritartasuna:</b> Taldeko jardueretan parte hartzea laguntasunaz disfrutatuz eta norbanako eta taldeak diputen beharrak identifikatzea laguntza jaso eta eskeiniz. 2. Gatazkak identifikatu, zaldu eta hauek konpontzeko konponbideak topatzea hausnartzeko gaitasuna garatuz. <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Elkarren artean komunikatzen ikastea, ideiak errespetuz eta modu argi baten adieraziz.</li> <li>◦ Beste kide batzuk sakonki ulertzea, erak sentitutakoa eta egindakoaz hausnartuz.</li> <li>◦ Elkarren arteko desberdintasunaz identifikatzea.</li> </ul>
Elkarren artean ikasteko kapazak izatea	KM, KA, KH, ZK	Bloke 3- a, b, c, d Bloke 2- c	- <b>Hiritartasuna:</b> Autokontzeptua. Identitate pertsonala. Norbanakoaren sentimendu eta emozioak ezagutzea. Norbanakoaren gaitasunak ezagutzea. Emozioak eta autonomia garatzea. Norbanakoaren jarrera kontrolatzea. Inpultsoen	Hiritartasuna: bloke 1, bloke 2, bloke 3	- <b>Hiritartasuna:</b> Taldeko jardueretan parte hartzea laguntasunaz disfrutatuz eta norbanako eta taldeak diputen beharrak identifikatzea laguntza jaso eta eskeiniz. 2. Gatazkak identifikatu, zaldu eta hauek konpontzeko konponbideak topatzea hausnartzeko gaitasuna garatuz.

Helburu didaktikoak	Konpetentziak	Saioetan garatuko diren edukiak	Dekretuan aipatutako eduki eta ikasgaien arteko harremana	Edukiak Dekretuan ageri diren ikasgai eta blokeekin harremanduta	Dekretuan oinarritzen diren ebaluazioa irizpideak
			kontrola, erlazazioa. Arduratxua izatea. Komunikatzeko gaitasunak garatzea. Komunikatu den mezuari buruz hausnartzea. Expresatu nahi diren ideiak argi edukitzea. Elkarren artean errespetatzea. Enpatia. Besteek duten potentziala ezagutzea. Elkarren arteko diferentziak ulertzea.		<ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Elkarren artean komunikatzen ikastea, ideiak errespetuz eta modu argi baten adieraziz.</li> <li>◦ Beste kide batzuk sakonki ulertzea, erek sentitutakoa eta egindakoaz hausnartuz.</li> <li>◦ Elkarren arteko desberdintasunaz identifikatzea.</li> </ul>

Mugimendurako kompetentzia: KM

Kompetentzia artistikoa: KA

Hiritartasuneko kompetentzia: KH

Zeharkako kompetentzia: ZK

\* Ebaluazioa irizpideak eta Dekretuarekin harremanduta dauden edukiak BON número 174, de 5 de septiembre de 2014 aterata daude.